

Inkesta Soziolinguistikoa

Udalerri euskaldunak (1991-2021)

2023ko apirila



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA

ATARIKOA	3
1. HIZKUNTZA-GAITASUNA.....	4
Euskararen ezagutza.....	4
Euskaldunen erraztasun erlatiboa.....	8
Ezagutza eta erraztasun erlatiboa.....	11
Hizkuntza-gaitasuna: gako nagusiak.....	13
2. TRANSMISIOA.....	14
Lehen hizkuntza.....	14
Euskaldunen lehen hizkuntza	17
Transmisioa.....	21
Lehen hizkuntza eta erraztasun erlatiboa.....	22
Transmisioa: gako nagusiak.....	23
3. ERABILERA.....	24
Erabilera orokorra	24
Eremuen araberako erabilera.....	28
Etxeko erabilera.....	31
Euskaldunen erabilera.....	34
Erabilera: gako nagusiak.....	44
4. JARRERA.....	46
Euskara sustatzeari buruzko jarrera.....	46
Euskara ikastea.....	49
Diskriminazio-sentimendua.....	50
Jarrera: gako nagusiak.....	52

ATARIKOA

Euskararen egoerari buruzko azterketa nagusietako bat da Inkesta Soziolinguistikoa. Bost urtean behin egiten dute, eta zazpigarren aldia izan da 2021ekoa. Horrenbestez, inkestak modua ematen du 30 urteko bilakaera zein den aztertzeko: 1991-2021. Ibilbide eta sendotasun handiko ikerketa da.

Euskal Herri osoa aztertzen du Inkesta Soziolinguistikoak, eta lau ildo nagusi hartzen du oinarri: euskararen ezagutza, transmisioa, erabilera eta jarrerak. 16 urtetik gorako populazioa du aztergai.

Udalerriz udalerriko daturik ez du ematen inkesta horrek. Hala ere, ikerketaren garrantzia ikusita, UEMAk Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin adostu du eredu bat udalerrri euskaldunetako datuak lortzeko. Zehazki, aztertu da ezagutzari dagokionez zein tartetan dauden udalerrri euskaldunak, eta tarte horretan egindako inkestak hartu dira analisiaren oinarri. Fidagarritasuna bermatua dute: 2021ean, adibidez, 1.074 inkesta egin dira udalerrri euskaldunetan.

Udalerrri euskaldunak laugarren gunekoak dira (euskaldunak % 80tik gora dituzten udalerrriak hartu dira), eta hirugarren guneko udalerrri batzuk (euskaldunak % 63tik gora dituztenak hartu dira, hortik behera dauden udalerrriak ez baitira udalerrri euskaldunen ezagutza-indizera heltzen).

Datuak egoki interpretatze aldera, kontuan hartu behar dira inkestaren berezitasunak. Zehazki, komeni da Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuarekin ez nahastea. Desberdintasun nagusiak:

	Inkesta Soziolinguistikoa	Zentsua
Adin-tartea	16 urtetik gora	2 urtetik gora
Unibertsoa	Euskal Herria	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Aztergaiak	Ezagutza, transmisioa, erabilera, jarrera	Ezagutza, lehen hizkuntza, etxeko erabilera
Iturriak	Telefono bidezko inkesta	Inkesta eta datu administratiboak

Inkesta Soziolinguistikoa elkarrekin egiten dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta EEP Euskararen Erakunde Publikoak. Datu-bilketa 2021ean egin zen, eta emaitzak 2023an eman dituzte. Martxo-apirilean nork bere aldetik eman dituzte datuak Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak. Dokumentu honetan udalerrri euskaldunetarako jasotako emaitzak, ordea, Euskal Herri osoari dagozkio, inkestaren lagin osotik jaso baitira datuak.

1. HIZKUNTZA-GAITASUNA


Lehen atal honetan, euskarazko gaitasuna da aztergai. Bi aldetatik erreparatu zaio: batetik, ezagutza, euskaraz jakitea; bestetik, gaitasun erlatiboa, elebidunek zein hizkuntzatan egiten duten errazago.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Udalerri euskaldunetako 16 urtetik gorako biztanleen % 76 euskaldunak dira, 2021eko inkestaren arabera. Herritarren % 8 euskaldun hartzaileak dira: euskara ulertzeko gai dira, baina ez daukate hitz egiteko adinako ezagutzarik. Erdaldunak % 15 dira: horiek euskara ez dute ulertu ere egiten.

Udalerri euskaldunen multzoa bitan bereizi da analisi zehatzagoa egiteko: batetik, laugarren guneko soziolinguistikoko udalerrak (euskaldunak % 80tik gora dituztenak); bestetik, hirugarren guneko udalerrak (euskaldunak % 63-80 dituztenak). Ezagutza denez oinarri, aldea dago batetik bestera.


1. grafikoa: Euskararen ezagutza (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Ezagutzaren bilakaerari erreparatuz gero, nabari da azken hamarkadan gora egin duela euskararen ezagutzak: 2011n jo zuen behea, eta ordutik zerbait igo da —hazkunde handiagoa izan zen 2011tik 2016ra, 2016tik 2021era baino—. Euskaldunen ehunekoa soilik ez, erdaldunena ere hazi da 2011tik. Begirada zabalagoa hartuta, gaur egungo datuak 1990eko hamarkadako parean edo behetik daude.


2. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Datu orokor horien azpian, ordea, bitariko errealitatea dago. Laugarren gune soziolinguistikoan, gainbehera nabarmena darama euskararen ezagutzak, eta 30 urtean izandako ehunekorik apalena dute euskaldunak —erdaldunak, handiena—. Alde horretatik, laugarren gune soziolinguistikoa nabarmen ari da ahultzen. Txanponaren beste aldean daude hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrri euskaldunak: horietan, euskararen ezagutza pixkanaka areagotzen ari da azken urteetan.


3. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskararen ezagutzaren datuak adinaren arabera ikusita, argia da joera: zenbat eta gazteago, euskaraz dakitenen ehuneko handiagoa —adinekoen multzoa da salbuespena: 65 urtetik gorakoen artean euskaldun gehiago dago, 35-64 urtekoen artean baino—. Adin-talde gazteenetan ezagutza unibertsalizaziotik gertu dago: 35 urtetik beherakoen artean, hamarretik bat ere ez da erdalduna.

4. grafikoa: Euskararen ezagutza, adinaren arabera (2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adinkako datuak eta orokorrak interpretatzean, kontuan hartu behar da adin-talde bakoitzaren pisu demografikoa: 35 urtetik beherako adin-taldeak, euskararen ezagutzarik handiena dutenak, nabarmen meharragoak dira 50 urtetik gorako adin-taldeekin alderatuta —eta, hain zuzen ere, multzo horretan dago erdaldunen zakurik handiena, bai ehunekotan, eta bai zenbatekotan ere—.

Baina adinaren araberako datuetan bada udalerrri euskaldunetan gertatzen ari den aldaketaren zantzu argi bat: 35 urtetik behera, euskararen ezagutza-tasak handiagoak dira hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan, laugarren gunekoetan baino. Finean, ezagutzaren bilakaera orokorrean sumatzen dena berresten du: ezagutzari dagokionez, urtzen ari da hirugarren eta laugarren guneko udalerrri euskaldunen arteko diferentzia, lehenengoen irabaziak eta bigarrenen galerak eraginda. 35 urtetik gorakoen artean ez da gertatu aldaketa hori: laugarren gunean sendoagoa da ezagutza, eta aldea oso nabarmena da 50 urtetik aurrerako biztanleriari dagokionez. Zantzu argia da hori, laugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan bereziki belaunaldi berrietan izan direla aldaketak.


5. grafikoa: Euskararen ezagutza, adinaren eta gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adin-talde bakoitzaren bilakaera desberdina da udalerrri euskaldunetan. Mugarri garrantzitsua: 1991n, adinekoen artean zegoen ezagutza hedatuena, eta adinean behera egin ahala jaitsi egiten zen; orain, berriz, ez, gazteen artean dago euskaldun gehiago. Hamabost urteko bilakaeretan oro har joerak berretsi egin dira. Adin-talde gazteenean eten egin da igoera, eta 25-34 urtetan, mantsotu.


6. grafikoa: Euskaldunen ehunekoaren eboluzioa, adinaren arabera (1991-2016, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Udalerrri euskaldunak gunearen eta adinaren arabera aztertuta, berriro ere agerian geratzen dira joera desberdinak. Laugarren gunean, jaitsiera da urteotako ezaugarri nagusia adin-talde guztietan —gazteetan, leunagoa—; hirugarren gunean, berriz, azken hamabost urteetan gorabidean doaz adin-talde guztiak, nahiz eta gazteenen multzoan beherakadatxo bat sumatu den azken inkestan.

7. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera, adinaren eta gunearen arabera (1991-2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

EUSKALDUNEN ERRAZTASUN ERLATIBOA

Gaitasunari dagokionez, bada ezagutzatik haragoko beste faktore erabakigarri bat ere: erraztasun erlatiboa, elebidunak euskaraz ala erdaraz moldatzen ote diren erosoago. Hortaz, atal honetan ez da aztergai hartuko 16 urtetik gorako biztanleria osoa, euskaldunak baizik (populazioaren % 76).

Euskal elebidunak dira udalerrri euskaldunetako elebidun gehienak (% 56): euskaraz errazago egiten dute erdaraz baino. Bigarren multzo esanguratsua elebidun orekatuena da, bietan antzeko erraztasuna dutenena: lautik bat dira (% 27). Multzorik txikiena, berriz, erdal elebidunek osatzen dute, erdaraz hobeto moldatzen direnek (% 16). Erraztasunari dagokionez, alde adierazgarria dago gune soziolinguistiko batetik bestera: laugarren guneko udalerrri euskaldunetan nabarmen gehiago dira euskal elebidunak, ia hirutik bi, eta gutxiago, aldiz, erdal elebidunak, hamarretik bat.


8. grafikoa: Euskaldunen erraztasun erlatiboa (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Erraztasun erlatiboaren adierazleak ez du bilakaera argirik eduki 30 urteko ibilbidean. 2021eko inkestan, serie osoko ehunekorik handienetakoa dute euskal elebidunek, eta erdal elebidunen portzentajea 30 urteko batez bestekotik behera dago. Alde horretatik, bilakaera positiboa izan da.


9. grafikoa: Euskaldunen erraztasun erlatiboaren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Erraztasun erlatiboan diferentzia esanguratsua dago laugarren gunetik hirugarrenera, baina tarte hori murriztu egin da hamarkada hauetan. Hara: 1991n, euskal elebidunen presentzia 27 puntu handiagoa zen laugarren gune soziolinguistikoan, eta 2021ean 10 puntura murriztu da alde hori. Erdal elebidunekin antzera gertatu da: hirugarren gunean 17 puntu goitik ziren, eta orain, 9 puntu.


10. grafikoa: Euskaldunen erraztasun erlatiboaren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Erraztasun erlatiboa adinaren ikuspegitik aztertuta, norabidea argia da: zenbat eta gazteago, euskal elebidunen presentzia handiagoa —berriz ere adinekoak dira salbuespena—. Erraztasunari dagokionez, esan daiteke 35 urte inguruan dagoela mugarrria: hortik behera, hiru euskaldunetik bi euskal elebidunak dira, eta erdal elebidunen presentzia ez da iristen % 10era; kontrara, 50-64 urtekoen artean, euskal elebidunak ez dira gehiengoak, eta erdal elebidun eta orekatu gehiago dago.

11. grafikoa: Euskaldunen erraztasun erlatiboa, adinaren arabera (2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

EZAGUTZA ETA ERRAZTASUN ERLATIBOA

Gaitasunari buruzko argazki osatua izate aldera, interesgarria da kapitulu honetan aztertutako bi aldagaiak, ezagutza eta erraztasun erlatiboa, jarraipen batean lotzea. Mugimendu apalak izan dira, oro har: aldaketarik adierazgarriena erdal elebidunen artean izan da, 30 urtean lau puntu jaitsita.


12. grafikoa: Ezagutzaren eta erraztasun erlatiboaren eboluzioa (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Gune soziolinguistikoaren arabera analisiak ageri-agerian jartzen du zein bide desberdina daramaten udalerrri euskaldunek. Bi guneetan, euskal elebidunek izan dituzte aldaketa handienak: laugarren guneko udalerrietan, 9 puntu jaitsi da profil horretako euskaldunen presentzia; igoera izan dute, ordea, hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan, 11 puntukoa. Finean, beraz, gero eta hurbilago daude hirugarren eta laugarren guneetako udalerrriak, nahiz eta oraindik baden alderik.

13. grafikoa: Ezagutzaren eta erraztasun erlatiboaren eboluzioa, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

HIZKUNTZA-GAITASUNA: GAKO NAGUSIAK

Ezagutza orokorra. Udalerrri euskaldunetan, 16 urte baino gehiagoko biztanleen % 76 dira euskaldunak. Datu hori 1990eko hamarkadakoan parekoa da, nahiz eta azken urteetan gora egin duen. Alde horretatik, Euskal Herriko bilakaeraz bestelakoa daukate udalerrri euskaldunak: ezagutza-datuak apalagoak dira Euskal Herrian, baina hamarkadotan igoera adierazgarria izan dute; udalerrri euskaldunetan nabarmen dago hedatuagoa euskararen ezagutza, baina aurrerapen mugatuak izan dira.

Gune soziolinguistikoak. Udalerrri euskaldunen barruan bi dinamika daude ezagutzari dagokionez: laugarren gune soziolinguistikoan behera egin du euskaldunen ehunekoak, eta 2021ekoa 30 urteko datu apalena da; hirugarren gunean, berriz, pixkanaka handitzen ari da ezagutza. Beste ikerketa batzuek erakutsitako bi aldeko txanpona ageri da, hortaz.

Adina. Zenbat eta gazteago, euskaraz dakitenen portzentaje handiagoa. Euskal Herriko joera orokorra nabari da udalerrri euskaldunetan, baina ñabardura handiekin: batetik, Euskal Herrian ez bezala, adinekoetan handiagoa da euskararen ezagutza, helduetan baino; bestetik, adin-talde batzuen eta besteen arteko aldeak txikiagoak dira udalerrri euskaldunetan, bereziki laugarren gunean. Adibidez, Euskal Herrian gazteen ezagutzatasak hirukoiztu egiten du heldu-adinekoena; udalerrri euskaldunetako aldea ere nabarmena da (25 puntu), baina ez dago horrelako saltorik. Transmisioaren eta erabilera-aukeren ikuspegitik garrantzitsua da hori.

Erraztasun erlatiboa. Euskal elebidunak dira udalerrri euskaldunetako euskaldun gehienak (% 56): aiseago egiten dute euskaraz. Ez da hori Euskal Herriko euskaldun gehienaren profila: erdal elebidunena da soslai ohikoena, eta hedatzen ari da, gainera, bereziki gazteen artean. Udalerrri euskaldunetan, ez, euskal elebidun gehien adin-talde gazteenetan dago.

2. TRANSMISIOA


Bigarren atalean, euskararen transmisioari erreparatu zaio: udalerrri euskaldunetako biztanleek zein hizkuntza jaso zuten umetan etxean. Ezagutzarekin eta erabilerarekin estu lotutako aldagaia da hori.

LEHEN HIZKUNTZA

Hau esan nahi du lehen hizkuntzak: hiztunak 3 urte bete arte etxean jasotako hizkuntza(k). Aldagai finkoa da, beraz: alda daitezke hiztunaren gaitasuna, erabilera eta jarrera, baina ez lehen hizkuntza.

Euskara dute lehen hizkuntza udalerrri euskaldunetako biztanle gehienek (% 63). Alde esanguratsua dago, hala ere, gune batetik bestera: laugarren gunean, lautik hiruk dute lehen hizkuntza euskara (% 75), eta hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan, bostetik hiruk (% 59). Hortaz, ezagutzaren aldagaian baino handiagoa da bi guneen arteko aldea lehen hizkuntzan. Etxean erdara jaso dute biztanleen % 29k, eta multzo txikiago bat tartean dago, etxean euskara eta erdara jaso dituela (% 8).


14. grafikoa: Lehen hizkuntza udalerrri euskaldunetan (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa murriztu egin da hamarkada hauetan: 30 urteren buruan 11 puntu jaitsi da portzentajea, nahiz eta 2011ko datuetatik gora dagoen orain. Galeraren irabazirik handiena erdarak jaso du (% 20tik % 29ra igota), eta neurri txikiagoan, *biak* tipologiak.


15. grafikoa: Lehen hizkuntzaren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Laugarren guneko soziolinguistikoko udalerrietan nabarmena da lehen hizkuntzaren gainbehera: nahiz eta oraindik lau biztanletik hiruk euskara izan lehen hizkuntza, 30 urtean 12 puntu egin du behera. 2011n jo zuen behea datuak, eta zerbait igo da ordutik. Erdara lehen hizkuntza dutenen pisu proportzionala bikoiztu egin da. Hirugarren gunean ere duela 30 urte baino gutxiago dira etxean euskara jasotako herritarrak, nahiz eta galera leunagoa den kasu horretan (% 64tik % 59ra).


16. grafikoa: Lehen hizkuntzaren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adin-talde guztietan gehiengoa dira lehen hizkuntza euskara duten herritarrak, baina diferentzia nabarmenak daude. Adinekoetan eta 35 urtetik beherakoetan daude ehunekorik handienak, % 70 edo gehiagokoak; 35-64 urte bitartean, berriz, % 60tik behera daude euskara lehen hizkuntza dutenak. Bada kontuan hartzeko beste joera bat ere: adin-talde gazteenetan presentzia handiagoa daukate euskara eta erdara jaso dituztenek. Transmisioan gertatzen ari den aldaketaren zantzia da.


17. grafikoa: Lehen hizkuntza, adinaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adin-taldeen arabera datu horiek gune soziolinguistikoetara eramanda, ageri dira ñabardura batzuk. Laugarren gunean, leunxeagoak dira multzo batetik besterako diferentziak, nahiz eta hor ere nabari den 35-64 urte artean dagoela lehen hizkuntza euskara ez duen herritar gehien. Aldeak askoz nabarmenagoak dira hirugarren gunean: 65 urtetik gorakoen eta 50-64 urtekoen artean 20 puntuko aldea dago, adibidez. Eboluzioa positiboa da, hala ere: zenbat eta gazteago, euskara gehiago.

18. grafikoa: Lehen hizkuntza, adinaren eta gune soziolinguistikoaren arabera (1991-2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

EUSKALDUNEN LEHEN HIZKUNTZA

Orain arteko datuetan aztertu da lehen hizkuntza zein den udalerrri euskaldunetako 16 urtez gorako biztanleria osoa kontuan hartuta. Interesgarria da, hala ere, fokua zehaztuta egitea beste analisi bat: euskaldunen lehen hizkuntza zein den. Nabarmena da datua: bost euskaldunetik lauk euskara jaso zuten umetan (% 82), eta laugarren guneko udalerrietan, gehiagok, ia hamarretik bederatzik (% 88).


19. grafikoa: Euskaldunen lehen hizkuntza (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak behera egin du hamarkada hauetan: 10 puntu jaitsi da 30 urtean. Joera beheranzkoa izan zen 2011ra arte, eta ordutik zerbait areagotu da ehunekoak.


20. grafikoa: Euskaldunen lehen hizkuntzaren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskara lehen hizkuntza duten euskaldunen ehunekoa bi guneetako udalerrri euskaldunetan jaitsi da. Bi kasuetan 2011n izan zuten daturik apalena, eta ordutik igotzen ari da. Umetan erdara jasotako euskaldunen ehunekoa murrizten ari da azken urteetan, eta biak jaso dituztenena, berriz, handitzen.


21. grafikoa: Euskaldunen lehen hizkuntzaren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskara lehen hizkuntza duten euskaldunen ehunekorik handiena adinekoen artean dago (% 90), eta aldea adierazgarria da adin-talde gazteenarekin konparatuta (% 79). Kontuan hartu behar da, hala ere, ezagutzaren datua: belaunaldi berrietan ia unibertsalizaziora iritsia da, eta, horrenbestez, adin-talde gazteetako herritar gehien-gehienak daude euskaldunen zakuan, baita etxean jaso ez dutenak ere; adinekoetan, berriz, apalxeagoa da ezagutza, eta horrek dakar euskaldunen multzoan lehen hizkuntzak pisu handiagoa izatea. 35-49 urteko euskaldunek dute ehunekorik apalena (% 75).


22. grafikoa: Euskaldunen lehen hizkuntza, adinaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adineko euskaldunen multzoan dago lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajerik handiena bi gune soziolinguistikoetan. Hirugarren gunean, alde adierazgarriak daude adinekoen multzotik gainerakoetara, hamar puntutik gorakoak; laugarren gunean, berriz, leunagoak dira diferentziak.

23. grafikoa: Euskaldunen lehen hizkuntzaren bilakaera, adinaren arabera (1991-2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

TRANSMISIOA

Lehen hizkuntza transmisioarekin dago zuzenean lotua. Beraz, argazki osatua izateko, aztertu da zein den transmisio-moldea hiztunen gurasoen euskara-ezagutzaren arabera. Ertz batean daude bi gurasoak euskaldunak dituzten hiztunak: ia erabat bermatua dago euskararen transmisioa (% 94), eta galera ez da adierazgarria (% 2). Guraso bakarra denean euskalduna, ele bietako transmisioa da nagusi. Hala ere, gurasoen sexuak eragin adierazgarria du: ama denean euskalduna, % 63k ele biak jaso dituzte, eta % 24k, erdara bakarrik; euskalduna aita denean, apalagoa da ele bien transmisioa (% 50), eta handiagoa da galera (% 38). Euskarazko transmisioa % 12-13koa da familia misto horietan.

24. grafikoa: Lehen hizkuntza, gurasoen euskara-ezagutzaren arabera (2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Transmisioari buruzko datu horietan aztergai da gaur egun 16 urte baino gehiago dituzten hiztunek jasotako lehen hizkuntza zein den, gurasoen euskara-ezagutzaren arabera; hortaz, informazio horrek gehiago adierazten du zein izan den azken hamarkadetako egoera transmisioari dagokionez, eta ez horrenbeste azken urteetan jaiotako umeen kasuan nolakoa izan den gurasoen transmisio-eredua, 2006tik atzera jaiotako hiztunei buruzko informazioa baita. Inkesta Soziolinguistikoa badira gaur egungo transmisioa aztertzeko galderak —15 urtez azpiko seme-alabak dituzten gurasoei egiten zaie galdera—, baina, lagina txikia denez, ezin izan da kalkulatu udalerrri euskaldunetarako informaziorik.

LEHEN HIZKUNTZA ETA ERRAZTASUN ERLATIBOA

Lehen hizkuntzak korrelazio estua du erraztasun erlatiboarekin. Hara: lehen hizkuntza euskara duten gehienak aiseago moldatzen dira euskaraz (% 66), eta lehen hizkuntza erdara dutenak, erdaraz (% 71). Lehen hizkuntza gisa biak jaso dituztenen artean, handiagoa da erdaraz aritzeko erraztasuna.

25. grafikoa: Euskaldunen erraztasun erlatiboa, lehen hizkuntzaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

TRANSMISIOA: GAKO NAGUSIAK

Lehen hizkuntza. Euskara da udalerrri euskaldunetako herritar gehienek lehen hizkuntza (% 63), eta etxean ele biak jasotakoak gehituta (% 8), hamarretik zazpi dira. Ehunekoa nabarmen jaitsi da, ordea: 30 urtean 11 puntu egin du behera, nahiz eta azken bi inkestetan zertxobait gora egin. Euskal Herrian oro har gertatu da lehen hizkuntzaren jaitsiera, baina bereziki nabari da udalerrri euskaldunetan. Hori bera gertatzen da udalerrri euskaldunen artean ere: hirugarren gunean baino handiagoa da jaitsiera laugarren gunean. Aldi berean, nolana ere, laugarren gune soziolinguistikoak du etxean euskara jasotakoek ehunekorik handiena, eta, gainera, hirugarren gunearekiko aldea ezagutzen baino handiagoa da.

Adina. Gazteenetan eta adinekoetan daude euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekorik handienak. Adinen arteko alderik handienak hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan daude, gazteetan nabarmen ari baita lehen hizkuntza gora egiten. Beste aldaketa bat ere badago: gazteetan, gehiago dira etxean euskara eta erdara, biak jaso dituztenak.

Euskaldunen lehen hizkuntza. Euskal Herrian aldaketa handia gertatu da euskaldunen profilean: gero eta gehiago dira euskara bigarren hizkuntza gisa jaso dutenak, ia herenak. Udalerrri euskaldunetan ere hazi da ehunekoa, batez ere 35 urtetik beherakoek artean, baina askoz ere gutxiago: hamarretik bat ere ez dira etxean erdara jaso duten euskaldunak. Bost euskaldunetik lauk euskara soilik jaso zuten etxean.

Transmisioa. Bi gurasoak euskaldunak direnean, ia erabatekoa da euskararen transmisioa udalerrri euskaldunetan; ez orain soilik, aurreko hamarkadetan ere hala izan da. Guraso bakarra denean euskalduna, aldaketak gertatzen dira orduan, batez ere guraso euskalduna aita bada. Edozein kasutan, profil bereko euskaldunen transmisioa aztertuta, udalerrri euskaldunetan nabarmen hobeak dira emaitzak; horrek erakusten du inguruak badaukala eragina hizkuntza-transmisioan ere.


3. ERABILERA

Euskararen erabilera du aztergai hirugarren atal honek, eta, analisi osatua egite aldera, erabilerari bi aldetatik begiratu zaio: batetik, erabilera-eremuaren arabera; bestetik, hiztunen ezaugarrien arabera.

ERABILERA OROKORRA

Inkesta Soziolinguistikoan hainbat eremutako erabilera aztertzen da, eta, horiek guztiak kontuan hartuta, erabilera-tipologia bat osatzen da, erabilera orokor gisa har daitekeena. Horren arabera, euskara da udalerrri euskaldunetako herritarren hizkuntza nagusia, alde handiz: % 58k euskara dute hizkuntza nagusia, eta % 13k erdaraz adina egiten dute euskaraz; herritarren % 30ek, erdaraz gehien. Erabileran alde adierazgarria dago laugarren guneko eta hirugarren guneko udalerrri euskaldunen artean: 12 puntuko diferentzia. Euskararen ezagutzan baino alde nabarmenagoa dago, horrenbestez.


26. grafikoa: Euskararen erabilera orokorra (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskararen erabilerak bilakaera positiboa izan du 30 urtean: zazpi puntuko irabazia. Gorabeherak izan dira bidean, baina 2021eko inkestakoa da udalerrri euskaldunetan jasotako erabilera-daturik handiena. Bi hizkuntzen erabilera beheratu egin da, eta, hortaz, erdararen erabilerak ez du izan euskararen igoerak adinako galerarik, nahiz eta 30 urtean hiru puntu inguru murriztu den erabilera.


27. grafikoa: Euskararen erabilera orokorraren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Bi guneen bilakaera desberdina da gune soziolinguistikoaren arabera. Laugarren gunean, egonkor dago erabileraren ehunekoa, hirutik biren bueltan; aldi horretan bertan, gaztelaniaren erabilerak iguera esanguratsua izan du, eta ia lautik batera iritsi da; ele bietako jardunak, berriz, behera egin du, eta % 10en bueltan dabil. Hirugarren gunean aldaketa handiagoa gertatu da: 1991n, erdararen erabilera euskararena baino bederatzita puntu handiagoa zen, eta orain euskara dago 21 puntu goitik.


28. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskararen erabilera badaude diferentzia esanguratsu batzuk adinaren ikuspegitik. Euskal Herriko joera orokorra hau da: zenbat eta gazteago, euskararen erabilera handiagoa. Udalerri euskaldunetan ez da lineala joera hori. 25-34 urtekoek egiten dute euskaraz gehien (% 73), eta jarraian daude gazteenak, 16-24 urtekoak (% 71); euskara gutxien, berriz, 50-64 urteko herritarrek darabilte (% 45).


29. grafikoa: Euskararen erabilera orokorra, adinaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Joera horiek errepikatu egiten dira bi gune soziolinguistikoetan, nahiz eta erabilera aldeak egon.


30. grafikoa: Erabilera orokorra, adinaren eta gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Adin-taldekako datu horiek eboluzio erabat desberdina izan dute hamarkada hauetan. Argia da aldea: 1991n, zenbat eta gazteago, erabilera txikiagoa; 2021ean, gazteek erabilera handiagoa. Hara: 34 urtetik beherakoen multzoan, 30 puntu baino gehiago hazi da euskararen erabilera 30 urtean; aitzitik, 50 urtetik gorakoen adin-taldeetan, apaldu egin da euskararen erabilera, 10 puntutik gora.


31. grafikoa: Euskararen erabileraren eboluzioa, adinaren arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Erabileraren igoerarik handienak hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan nabari dira, 34 urtetik beherakoen artean: 40 puntutik gorako hazkundeak. Euskaraz gutxien haiek egiten duten lehen, eta orain, gehien, aldeaz. Laugarren gunean ere hazi da gazteen erabilera, hein txikiagoan; udalerrri horietan, galerak dira nabarmenagoak, 50 urtez gorakoen artean, 15 puntukoak baino gehiagokoak.

32. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, adinaren eta gunearen arabera (1991-2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

EREMUEN ARABERAKO ERABILERA

Euskararen erabilera ez da berbera eremu guztietan. Inguru hurbilari dagokionez, bada eremu bat erabilera apalagoa duena: lantokia. Lankideekiko harremanetan euskara da hizkuntza nagusia (% 51), baina, beste eremu batzuekin alderatuta, apalagoa da euskarazko jarduna. Lagunartean, adibidez, zortzi puntu handiagoa da euskararen erabilera (% 59). Eremu formalari dagokionez, euskararen erabilera % 60 inguruan dago, baina bada nabarmentzeko arlo bat: udal-zerbitzuekiko harremanean % 67ra hazten da euskararen erabilera. Ele bietakoak batuta (% 72), ezagutza datutik ere hurbil dago.


33. grafikoa: Euskararen erabilera inguru hurbil eta formalean (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Bi gune soziolinguistikoetan errepikatu egiten dira joera nagusiak, nahiz eta erabilera-indizeak aldatu. Lagarren gunean, proportzioan handiagoa da lankideekiko harremanetik gainerakoetara dagoen koska: 10 puntukoa edo handiagoa. Beste datu adierazgarri bat: bi guneetan, lagunarteko erabilera baino apalagoa du eremu formal batek, osasun-zerbitzuak. Alde horretatik, interesgarria da ikustea nolako aldea dagoen zerbitzu publikoen artean: lagarren gunean, udalean baino zazpi puntu apalagoa da euskararen erabilera osasun-arloan, eta hirugarren gunean, 11 puntu apalagoa.


34. grafikoa: Euskararen erabilera inguru hurbil eta formalean, gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Eremu bakoitzeko erabilerak zer bilakaera izan duen, gorakada nabari da oro har. 30 urteko bidea hiru mugarritan aztertuz gero, argia da joera: 1991tik 2006ra irabazi esanguratsua izan zen kasu gehienetan, baina 2006tik 2021era askoz mugatuagoa izan da hazkundera, edo, are, eten ere egin da.

35. grafikoa: Euskararen erabileraren eboluzioa inguru hurbil eta formalean (2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

ETXEKO ERABILERA

Eguneroko jardunean garrantzi berezia du etxeak. 2021eko inkestaren arabera, euskara da hizkuntza nagusia udalerrri euskaldunetako etxeetan, ia bostetik hiruko erabilerarekin (% 57). Azken 25 urtean izandako erabilera-tasarik handiena da. Euskararen erabileraren hazkundeak ez du ekarri erdararen erabileran jaitsiera adierazgarria: ele bietako jardunak egin du atzera, eta % 10etik behera dago orain.

Bilakaera aztertzean, interesgarria da etxeko erabilera eta orokorra alderatzea (27. grafikoa). Iraultze bat gertatu da azken hamarkadan: 2016ra arte, erabilera orokorraren zertxobait gainetik egon da etxekoa, baina azken bi inkestetan aldatu egin da ordena: etxekoa zertxobait azpitik dago.


36. grafikoa: Euskararen etxeko erabileraren bilakaera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Etxeko erabileraren bilakaera gune soziolinguistiko bakoitzean aztertuta, badira alde batzuk. Laugarren gunean, jaitsiera nabarmena izan du erabilerak 1991tik 2021era, ia 12 puntukoa, eta igoera hori bera izan du erdararen erabilerak. Hirugarren gunean, berriz, ez da jaitsierarik nabari: 1991tik 2006ra igoera oso apala izan zen, baina azken hamabost urteetan bost puntu areagotu da.


37. grafikoa: Euskararen etxeko erabileraren bilakaera, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Etxeko erabilera ez da beti homogeneoa: alegia, etxe berean aldatu egin daiteke hizkuntza bateko edo besteko jarduna, hiztunen arabera. 2021eko inkestaren arabera, etxeko erabilerarik handiena gurasoen eta seme-alaben artekoa da (% 62), eta apalena, bikotekoa (% 53). Neba-arreben arteko erabilera hurbil dago seme-alabenetik (% 60). Kontuan hartu behar da 16 urtetik gorako hiztunak hartzen dituela kontuan inkestak, eta, beraz, umeekiko jarduna seme-alabekiko aldagaian bakarrik dagoela zenbatua, eta hor ere denak ez direla umeak —seme-alaba helduak ere barruan baitaude—.


38. grafikoa: Etxeko erabilera, hiztunen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Joera orokorra bi gune soziolinguistikoetan errepikatzen da: bikotean euskara gutxien, seme-alabekin gehien. Laugarren gunean, alde apalxeagoa dago erabilera orokorretik seme-alabekikora.


39. grafikoa: Etxeko erabilera, hiztunen eta gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Bikoteko erabileran izan da aldaketarik adierazgarriena etxean: 1991tik 2006ra zazpi puntuko jaitsiera izan zen, adierazgarria, eta ordutik gora egin du, baina aurreko datuetara iritsi gabe. Seme-alabekiko eta neba-arrebekiko erabileran, berriz, apenas gertatu den aldaketarik 30 urtean.

40. grafikoa: Etxeko erabileraren eboluzioa hiztunen arabera, udalerrri euskaldunetan (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

EUSKALDUNEN ERABILERA

Erabilera xeheago aztertzeko, biztanleen unibertso osoaren ordezkari euskaldunak hartu dira orain kontuan. Datuek zera erakusten dute, udalerrri euskaldunetako herritar euskaldunen artean euskara dela hizkuntza nagusia, alde nabarmenarekin: % 75. Kontuan hartu behar da tipologia hori osatzerakoan kontuan hartu direla *gehienetan euskaraz* egiten dutela diotenak ere. Guneen artean alde adierazgarria dago hiztun euskaldunen erabileran: hirugarren gunean, % 72; laugarrenean, % 87.


41. grafikoa: Erabilera euskaldunen artean (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaldunen erabilerak gora egin du hamarkadotan: serie osoko daturik handiena da 2021ekoa, 1991koa baino 11 puntu handiagoa. Erdararen eta ele bien erabilerak, berriz, beherantz egin dute. Erabilera orokorrean ikusi denez, hemen ere mugarrria dago 2006an; ordutik txikiagoa da irabazia.


42. grafikoa: Erabileraren bilakaera euskaldunen artean (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Bi gune soziolinguistikoetan egin du gora euskaldunen erabilera orokorrak. Hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan izan da goraldirik handiena —tarterik handiena ere horiek zuten—, eta nabarmen murriztu da aldea gune batetik bestera: 25 puntuko aldea zen 1991n, eta 2021ean, 9koa.


43. grafikoa: Erabileraren bilakaera euskaldunen artean, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertzean sumatu dira diferentzia adierazgarri batzuk. Soilik euskaldunen datuak kontuan hartuta, zera nabari da, alde horiek ez direla soilik euskararen ezagutzarekin lotuak, euskaldunen erabileran ere bai baitaude aldeak. 25-34 urteko euskaldunena da erabilerarik handiena (% 84), eta paretsuan daude gainerako adin-talde gehienak, % 76 aldean; euskararen erabilerarik apalena, datu orokorretan bezala, 50-64 urteko euskaldunek dute, % 68koa.


44. grafikoa: Euskaldunen erabilera orokorra, adinaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaldunen erabilera eremu hurbilean eta formalean nolakoa den aztertuz gero, nabarmen ageri da hutsunea: lantokia. Hirutik bi aritu ohi dira lantokian euskaraz (% 66), gainerako eremuetan baino nabarmen gutxiago, nahiz eta hor ere hizkuntza nagusia euskara izan. Eremu formalean, osasun-zerbitzuan gutxiago egiten da euskaraz udaletxean, banketxeetan edo dendetan baino.


45. grafikoa: Euskaldunen erabilera inguru hurbil eta formalean (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Eremu guztietan egin du gora euskaldunen erabilera, baina ez hein berean. Osasun-zerbitzuetan izan da gorakadarik handiena: abiapuntuko erabilera apalena hor zegoen, alde handiz, eta bikoiztu egin da euskaldunen erabilera, nahiz eta oraindik beste eremu batzuetan baino apalagoa den. Banketxeetako erabilerak ere hazkunde esanguratsua izan du. Erabileraren bolumenaren aldetik, hala ere, bi dira nabarmentzekoak: lagunartekoa (13 puntu gora) eta lantokia (17 puntu gora). Bilakaera aztertzean, argia da joera: 1991tik 2006ra gehiago igo zen erabilera, 2006tik 2021era baino.


46. grafikoa: Euskaldunen euskara-erabileraren eboluzioa inguru hurbil eta formalean (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaldunen etxeko erabileran ere nabari da arestian aipatutako joera, nahiz eta, euskaldunak soilik hartzen direnez kontuan, erabilera-indizeak handiagoak ageri diren: seme-alabekin egiten dute euskaraz gehien (% 87), eta gutxien, bikotekidearekin (% 73). Tartean, neba-arrebak (% 78).


47. grafikoa: Euskaldunen etxeko erabilera, hiztunen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaldunen etxeko erabilera orokorrean ez da eboluzio nabarmenik izan 30 urteotan: % 75ean dago erabilera. Seme-alabekiko erabilerak izan du gorakada adierazgarria, zazpi puntukoa; neba-arrebekiko eta bikotekidearekiko harremanetan ez da gisa horretako hazkunderik izan urteotan.


48. grafikoa: Euskaldunen etxeko erabileraren eboluzioa hiztunen arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaraz jakitea ezinbesteko baldintza da euskaraz aritzeko, baina, hortik haragoko faktoreek ere eragin handia dute. Lehen hizkuntzak, adibidez, garrantzi handia du: umetan euskara jaso duten gehienek euskara dute ohiko hizkuntza (% 82), baina umetan bi hizkuntza jaso dituzten euskaldunen artean, erdira ez da iristen euskararen ohiko erabilera (% 49). Lehen hizkuntza erdara duten euskaldunen artean % 37koa da euskararen erabilera. Alde horretatik, ondorio bat atera daiteke: lehen hizkuntza euskara bakarrik izan dutenek erabilera nabarmen handiagoa daukate (33 puntu), eta alde txikiagoa dago lehen hizkuntza ele biak edo erdara izan dituztenen artean (12 puntu).


49. grafikoa: Euskaldunen erabilera, lehen hizkuntzaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Lehen hizkuntzaren arabera datu horiek aldatu egiten dira guneko soziolinguistikoen arabera; alegia, lehen hizkuntzaren aldetik profil bera duten euskaldunek erabilera handiagoa daukate laugarren guneko soziolinguistikoen, hirugarrenean baino. Profil guztietan gertatzen da hori, baina bereziki erabilera apalagoak dituztenetan. Hara: lehen hizkuntza euskara dutenek sei puntu gehiago egiten dute laugarren gunean; lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenek, 12 puntu gehiago; eta lehen hizkuntza erdara dutenek, 8 puntu gehiago. Hots, laugarren gunean ere alde handia dago lehen hizkuntzaren arabera, baina erabilera askoz ere handiagoa da udalerririk horietan.


50. grafikoa: Erabilera, lehen hizkuntzaren eta gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskaldunen erabilerak gora egin du hiru tipologietan 30 urteotan, eta koska nabarmena izan da, gainera. Lehen hizkuntza euskara dutenen erabilerak igoera adierazgarria izan du, 14 puntukoa, eta are handiagoa gainerako profiletakoen erabilerak: biak lehen hizkuntza dituztenen erabilera 35 puntu hazi da, nahiz eta orain jaitsieratxo bat izan; erdara lehen hizkuntza dutenena, 24 puntu.


51. grafikoa: Erabileraren eboluzioa, lehen hizkuntzaren arabera (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Diferentziak are nabarmenagoak dira euskaldunen erabilera erraztasun erlatiboaren arabera aztertuz gero —aldagai horrek lotura estua du lehen hizkuntzarekin—. Euskal elebidunek, euskaraz erraztasun handiagoa dutenek, ia erabat egiten dute euskaraz (% 95). Erraztasun erlatiboa aldatzen den heinean, erabilera ere bai: bi hizkuntzetan antzeko erraztasuna dutenen hizkuntza nagusia euskara da (% 69), eta saltorik esanguratsuena erdaraz aiseago egiten dutenen artean dago (% 17).



52. grafikoa: Euskaldunen erabilera, erraztasun erlatiboaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Gune soziolinguistikoak badu eragina hiztun horien erabileran, batez ere elebidun orekatuen eta erdal elebidunen kasuan —horiek dute hazteko tarterik handiena—: laugarren gunean, elebidun orekatuen erabilera zortzi puntu handiagoa da hirugarren gunean baino, eta erdal elebidunena, bederatzi puntu handiagoa. Erraztasun erlatiboaren datuetan aintzat hartu behar da erabilerarekiko lotura bi norabidekoa dela: alegia, euskaraz errazago egiteak erabilera errazten du, eta, aldi berean, euskaraz egiteak erraztasun erlatiboa areagotzea dakar. Inguruaren eragina funtsezkoa da, hortaz.

53. grafikoa: Erabilera, lehen hizkuntzaren eta gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

ERABILERA: GAKO NAGUSIAK

Erabilera orokorra. Euskara da udalerrri euskaldunetako hizkuntza nagusia: % 58ko erabilera. 30 urtean bilakaera positiboa izan du: zazpi puntuko irabazia. Erdararen eta ele bien erabilerak behera egin dute. Udalerrri euskaldunetako eta Euskal Herriko datu orokorrak konparatuta, diferentziarik handiena erabileran dago, ezagutzan baino nabarmenagoa.

Gune soziolinguistikoak. Hirugarren eta laugarren gunearen artean hamabi puntuko tartea dago. Bilakaerari dagokionez, ordea, hirugarren gunea ari da pauso esanguratsuak ematen: 1991n, erdararen erabilera euskararena baino handiagoa zen, eta, orain, euskara dago hogeit hamar goitik. Laugarren gunean, egonkor dago euskararen erabilera azken hogeit hamar urteetan, baina 1990eko hamarkadaren azpitik. Erdararen erabilerak gora egin du laugarren gunean, eta lau herritarretik baten hizkuntza da orain.

Adina. Euskal Herriko joera hau da: zenbat eta gazteago, euskararen erabilera handiagoa. Udalerrri euskaldunetan badira nabardurak: euskara gehien gazteek erabiltzen dute (25-34koek gehiago, 16-24koek baino), eta gutxien, 50-64 urtekoek. Ezagutzak badu zerikusia horretan, baina soilik euskaldunen erabilerari erreparatuta ere gisa berekoa da joera. Aldaketa handia gertatu da hamarkada hauetan: 1991n, zenbat eta helduago, handiagoa zen euskararen erabilera; orain erabat hautsi da hori. Batez ere hirugarren gune soziolinguistikoan gertatu da aldaketa, gazteen eskutik.

Eremu hurbil eta formala. Erabilerak eremu formalean egin du urratsik handiena: orain hamarkada bat arte, udalerrri euskaldunetako etxeetan handiagoa zen euskararen erabilera eremu formalean baino; orain, ez. Hori bera gertatu da Euskal Herrian ere. Eremu formalean erabilera guztiek egin dute gora, eta udaletxekoa da handiena (% 67). Hutsune nagusia lantokietan dago eremu formalean: euskararen erabilera % 51koa da. Lantokia berezitasuna da udalerrri euskaldunetan: Euskal Herriko datu orokorretan, izan ere, erabilera orokorraren eta etxeko erabileraren

gainera dago lantokikoa, baina udalerrri euskaldunetan, ez. Noski, datu horiek aztertzean kontuan hartu behar da testuingurua ere: udalerrri euskaldunetako herritar guztiek ez dute lantokia udalerrri euskaldunetan.

Etxea. Azken urteotan ez da aldaketa handirik gertatu etxeko erabileran (% 57); alde horretatik, geldialdi hori bat dator Euskal Herriko joerarekin. Hala ere, udalerrri euskaldunen multzoan bi norabide ageri dira berriz ere: hirugarren gunean, hazkunde apala baina jarraitua du etxeko erabilerak; laugarren gunean, berriz, jaitsiera esanguratsua gertatu da etxean, 12 puntukoa. Hala ere, alde handia dago erabileran: laugarren gunean, % 64; hirugarrenean, % 53. Etxe barruko harremanetan ere badago diferentzia: euskara gehiago erabiltzen da seme-alabekin eta neba-arrebeekin, eta gutxiago bikotekidearekin. Hitzunen araberako diferentziak gehiago sumatzen dira hirugarren guneko etxeetan, laugarren guneoetan baino.

Euskaldunen erabilera. Hamarkada hauetan gora egin du euskaldunen erabilerak: euskaldunek % 75eko erabilera dute. Datu horrek baditu ñabardura batzuk. Batetik, euskaldunen ezaugarriek eragiten dute: lehen hizkuntza euskara dutenek erabilera handiagoa dute (% 82), baita euskal elebidunek ere (% 95); bestetik, inguruak ere badu eragina, laugarren gune soziolinguistikoko euskaldunen erabilera handiagoa baita (% 81).

4. EUSKARAREKIKO JARRERA

Inkesta Soziolinguistikoak, azkenik, jarrerak ditu aztergai. Udalerri euskaldunetarako, aldagai hauek hartu dira aintzat: sustatzeari buruzko jarrera, euskara ikastea eta diskriminazio-sentipena.


EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

Herritarrek zer jarrera duten euskara sustatzeari buruz, hiru tipologia eratuta aztertzen du hori inkestak. Jarrerak zehazteko, honako lau baieztapen hauekiko adostasunari buruz egiten da galdera:

- Administrazioak sartzeko, euskara jakitea beharrezkoa da
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea, euskara ikastea baino
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea
- Irrati-telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz

Euskara sustatzearen aldeko jarrera dute udalerri euskaldunetako biztanle gehienek, zazpitik seik. Bi guneen artean ez dago diferentzia handirik jarreretan: aldetxo bat, bai, euskararen aldeko jarrera duten herritarren ehunekoan, hirugarren gunean gehixeago baitira (% 86 vs. % 83). Aurkako jarrera % 2tik beherakoa da. Tarteko jarrera du zazpitik batek (%14), gehixeagok laugarren gunean (% 16).


54. grafikoa: Euskara sustatzeari buruzko jarrera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskara sustatzearen aldekotasuna gero eta handiagoa da udalerrri euskaldunetan: 30 urtean hamar puntu handitu da aldeko jarrera dutenen ehunekoak. Nolanahi ere, gorabidea ez da etengabea izan: azken hamabost urteetan mugatuagoa izan da igoera. Kontrako jarrera beti izan da mugatua: % 5 baino apalagoa izan da aztertutako epealdi osoan. Aldaketa nagusia izan da tarteko jarrera gero eta txikiagoa dela; alegia, alde edo aurka ez zeudenak gutxitu egin dira, eta aldeko jarrera dute gehiagok.


55. grafikoa: Euskara sustatzeari buruzko jarreraren eboluzioa (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Euskara sustatzearen aldeko jarrera erabat nagusi da bi guneetan, baina badira ñabardurak. Laugarren gune soziolinguistikoan aldaketa apala izan da urteotan, eta 2006ko ehunekoaren azpitik daude aldekoak; hirugarren gunean igoera handia izan du aldekotasunak, baina batez ere 1991-2006 artean gertatu zen hazkunde hori, eta ordutik aurrera egonkor samar daude jarrerak.


56. grafikoa: Euskara sustatzeari buruzko jarreraren eboluzioa, gunearen arabera (1991-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Hizkuntza-jarreretan aldagai erabakigarria da ezagutza: euskaraz dakitenek dute sustapenaren aldeko jarrerarik handiena (% 92); euskaldun hartzaileen eta erdaldunen artean ere gehiengoa da euskara sustatzearen aldeko jarrerakoa (% 58). Aurkako jarrera bazterrekoa da tipologia guztietan; presentziarik handiena euskaldun hartzaileen artean du, eta hamarretik bat ingurukoa da (% 11).


57. grafikoa: Euskara sustatzeari buruzko jarrera, euskara-ezagutzaren arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Hiztun-tipologia bakoitzaren jarreraren aldaketak daude gune soziolinguistiko batetik bestera. Hirugarren gunean aldekotasuna handiagoa da. Batetik, euskaldunei dagokienez, lau puntuko diferentzia dago aldekotasunean, eta gehiago dira tarteko jarrera dutenak. Euskaldun hartzaileen eta erdaldunen artean, aldeko jarrera apalagoa da udalerririk euskaldunenetan, eta diferentziak adierazgarriak da, gainera. Edonola ere, euskararen aurkako jarrera oso mugatua da kasu guztietan.

58. grafikoa: Euskara sustatzeari buruzko jarrera, euskara-ezagutzaren eta gunearen arabera (2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa


EUSKARA IKASTEA

Jarrerarekin lotuta, euskararen ikaskuntzari buruzko galderak ere badira inkestan: batetik, seme-alabek nola ikastea nahiko luketen, eta bestetik, eurak saiatu ote diren euskara ikasten edo hobetzen.

Seme-alabentzat hobetsitako hizkuntza-ereduari dagokionez, erabat hedatua dago euskarazkoaren aldeko hautua: hamarretik bederatziren aukera da seme-alabek euskaraz ikastea, gaztelania edo frantsesa ikasgai izanik (% 90). Ele bietako eredia dago bigarren, oso alde handira: % 7k nahi dute.

Aldiz aldi gora egin du euskarazko irakaskuntzaren aldeko jarrerak: 1996an galdetu zuten lehen aldiz gai horri buruz, eta hirutik bi azaldu ziren alde; ele bietako irakaskuntzak laurdenen babesa zeukan orduan. Orduetik aurrera, ordea, norabide argia izan da euskarazko irakaskuntzaren aldera.

59. grafikoa: Seme-alabentzat nahiko luketen hizkuntza-ereduaren bilakaera (1996-2021, %)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

DISKRIMINAZIO-SENTIMENDUA

Euskaldunei eta erdaldunei galdetu zaie inoiz sentitu ote diren diskriminatuta hizkuntzagatik. Euskaldunei dagokienez, bostetik bik adierazi dute diskriminatuta sentitu direla ez dutelako izan aukerarik euskara erabiltzeko (% 41); erdaldunei dagokienez, % 44k esan dute diskriminatuta sentitu direla euskaraz ez jakiteagatik; diskriminatuta sentitu direnen ehunekoa ere egonkor dago.


60. grafikoa: Diskriminatuta sentitu direnen ehunekoa (2006-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

Diskriminatuta sentitu diren euskaldunen ehunekoak gisa berekoa da hirugarren guneko udalerrri euskaldunetan eta laugarren gunekoetan. Erdaldunen artean badago aldea: laugarren gunean, diskriminatuta sentitu direla adierazi dute erdaldunen erdiek (% 50), hirugarren gunean baino zortzi puntu gehiagok (% 42). 2006ko inkestatik aurrera galdetzen dute diskriminazio-sentsazioari buruz, eta orduko ehunekoak baino handiagoak dira laugarren gunean: diskriminatuta sentitzen diren erdaldunen ehunekoak 12 puntu egin du gora —hirugarren gunean bi puntu eskas igo da—. Euskaldunen artean ere hazi da diskriminazio-sentsazioa, baina gutxiago —puntu bateko igoera—.

61. grafikoa: Diskriminatuta sentitu diren erdaldunen ehunekoak, gunearen arabera (2006-2021, %)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa

JARRERAK: GAKO NAGUSIAK

Sustapena. Euskara sustatzearen aldekoak dira udalerrri euskaldunetako biztanle gehienak, zazpitik sei; aurkako jarrera oso bazterrekoa da (% 2). Aldekotasuna areagotu egin da hamarkada hauetan hirugarren gunean, baina ez laugarrenean —hala ere, % 83 daude euskara sustatzearen alde—. Euskararen ezagutza giltzarria da: euskaldunen % 92k dute aldeko jarrera, eta erdaldunen % 59k. Ñabardura bat: erdaldunen aldekotasuna handiagoa da udalerrri euskaldunetan, oro har Euskal Herrian baino. Baina udalerrri euskaldunetan ez da hala gertatzen guneen artean: hirugarren gunean, izan ere, aldekotasun handiagoa ageri dute euskaldunek zein erdaldunek.

Euskara ikastea. Erabat hedatua dago euskarazko hezkuntzaren aldeko hautua: hamarretik bederatzik babestu dute. Ele bietako ereduak bazuen babesa orain hamarkada batzuk, baina erabat bazterreko hautua da orain.

Diskriminazio-sentimendua. Hizkuntzarekin lotutako diskriminazio-sentimenduaz galdetuta, hona bi ertz: euskaldunei dagokienez, bostetik bik adierazi dute diskriminazioa sentitu izan dutela ezin izaten dutelako euskaraz jardun; bestetik, erdaldunei dagokienez, antzeko portzentajea da euskaraz ez jakiteagatik diskriminatuta sentitu izan direnena. Euskal Herriko datu orokorren aldean, ehuneko handiagoa da diskriminazioa sentitu izan dutenena udalerrri euskaldunetan, eta batez ere erdaldunena.